

GORPUTZ HEZKUNTZA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa

ikastetxea:		kodea:	
etapa:	LEHEN HEZKUNTZA (LH)	zikloa/maila:	4. maila
arloan/irakasgaia:	GORPUTZ HEZKUNTZA		
osatutako arloak/irakasgaiak			
diziplina barruko oinarritzko kompetentzia elkartuak	<p>a) Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Programazioarekin lotutako hiztegia ezagutzea eta erabiltzea. • Nork bere erantzun motorrak, bizipenak eta emozioak taldean ahoz azaltzea. <p>b) Matematikarako kompetentzia.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jokoen puntuazioa, saiakera-, arrakasta- eta porrot-kopuruak kalkulatzeko eta haien interpretazio matematikoa egitea. • Azalerak, altuerak eta denborak neurtzea. <p>c) Zientziarako kompetentzia.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hainbat natura-inguruetara egokitzea eta natura-inguruneetan jarrera arduratsua izatea. • Planoak eta grafikoak interpretatzea. <p>d) Teknologiarako kompetentzia.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bizikletaren eta patinen atalak eta beren funtzioak identifikatzea eta ulertzea. • Informazioa bilatzeko, informazio- eta komunikazio-teknologiak eraginkortasunez erabiltzea. <p>e) Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Elkarlana zer den ulertzea eta era positiboan balioestea. • Jarrera ez baztertzaila izatea, aniztasuna balioestea eta lagunekiko errespetua izatea inor baztertu gabe, gaitasun, genero, maila sozio-ekonomiko, jatorri edo beste edozein arrazoi dela. <p>f) Arterako kompetentzia.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jarrera sortzailea izatea eta erritmo errazak erabiliz, irristaketa artistikora hurbiltzea. • Euskal kulturaren eta beste kulturetan gorputzaren adierazpen-baliabideak ezagutzea. <p>g) Kompetentzia motorra.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ingurune egonkorrean lineako patinez eta ziurgabetasun-inguruneetan bizikletaz segurtasunez eta era autonomoan desplazatzea. • Bat baten aurkako, elkarlaneko, bakarkako, elkarlan- eta aurkakotasuneko, ziurgabetasun-inguruneetako eta adierazpen- eta arte-ekintzetako egoera motorrak lantzea, printzipioak eta arauak ezagutzea, hautatzea eta aplikatzea. 		
irakasleak:		ikasturtea:	2017-2018

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales*:

1. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
 - Egindako praktikan, norberaren erantzun motorrak eta jarrerak aztertzea, ebaluatzea eta norbera erregulatzea (pentsamendu kritikoa).
 - Jokoetan estrategiak sortzea eta aukeratzea (pentsamendu sortzailea).
2. Ekimen eta espiritu ekintzailerako kompetentzia
 - Ekintza-arauak eta -printzipioak sortzea eta ikaskuntzan aurrera egiteko proposamenak egitea.
 - Egindako jarduerak ebaluatzea eta saioaren bukaeran hobetzeko proposamenak egitea.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia
 - Taldean lan egiten ikastea: estrategiak adostea, helburu berarekin elkarlanean aritzea eta rol bakoitzari dagokion funtzio eta betebeharrak onartzea.
 - Hezkidetzeta eta genero-berdintasuna kontuan hartzea.
4. Izaten ikasteko kompetentzia
 - Nork bere erabakiak gero eta autonomia gehiagoz hartzea eta erabakitakoen gaineko erantzukizuna onartzea.
 - Norberaren kontzeptu eta estimu ona edukitzea.
5. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia
 - Hitzez aginduak eta gomendioak ematean, estrategiak adostean eta bizipenak, emozioak eta pentsamenduak adieraztean, era autonomo, sortzaile eta eraginkorrean aritzea.
 - Gorputzaren adierazpen-baliabideak eta mugimendua ulertzea eta errespetatzea, eta gorputzarekin adierazteko autonomia izatea.

helburuak	ebaluazio-irizpideak
<p>ETAPAKO HELBURUAK.</p> <p>Gorputz Hezkuntza arloko irakaskuntzak kompetentzia hauek lortzea du helburu etapa honetan:</p> <p>1) Hautemate-gaitasunak eta gaitasun motorrak aztertzea, nork bere buruarengan konfiantza izatea eta norberaren ongizatea sustatuz, osasunerako onuragarria izan dadin.</p> <p>(A-B-C)</p> <p>2) Trebetasun eta gaitasun fisikoak garatzea, haurren eboluzio-prozesuarekin bat, jolasa erabiliz, oinarritzko baliabide den aldetik.</p> <p>(A-B-D)</p> <p>3) Problema motorrak ebazteko printzipioak eta arauak ezagutzea, hautatzea eta aplikatzea, jarduera fisikoak, kirol-jarduerak eta arte- eta adierazpen-jarduerak praktikatzean eraginkortasunez eta autonomiaz aritzea, ahalegina erregulatuz, dosifikatuz eta balioetsiz, eta norberaren aukeren eta zereginaren nolakotasunaren arabera maila jakin batera</p>	<p>– EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.</p> <p>A) Ezezagunak eta zalantzarriak diren ingurune askotarikoetan egokitzea lekualdatzeak eta jauziak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ingurunea aztertu eta erabaki zuzena hartzen du, bizikletaz mugitzeko. - Segurtasuna lehenesten du. <p>B) Jolasetan eta jarduera motorretan pilotak edo beste higikari batzuk jaurtitzea, pasatzea eta jasotzea, kontrola galdu gabe eta behar bezala egokituz joko-zelaiko egoerari, distantziei eta ibilbideei.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Joko-egoera bere alde jartzeko gai da. - Tanta egiteko hainbat aukera baliatzen ditu. - Desplazamenduak eta pilota jotzeko ekintzak era koordinatuan eta jarraian egiten ditu. - Jolas-egoeran, espazio hutsei antzeman eta modu eraginkorrean erabiltzen ditu. - Jolas-egoeretan, aurkariari aurre egin eta pilotari eskuz jotzeko gai da. - Eskuz, palaz eta xisteraz pilotari ibilbide eta abiadura egokia ematen dio. - Jolas-egoeran, eskuekin eta oinekin baloia kontrolatzen du. - Desplazamenduak, baloiarekin eta baloirik gabe, pase-harrerak, jauziak, baloi-gidatzeak, baloi-jotzeak eta gola sartzeko jaurtiketak era koordinatuan eta jarraituan egiten ditu.

<p>iristea nork bere buruari ezartzen dion eskakizunean.</p> <p>(E-)</p> <p>4) Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako jolas-tradizioak, jarduera fisikoen eta kirol-jardueren tradizioak nahiz adierazpen-tradizioak ezagutzea, haien balioak errespetatzeko eta balioesteko, jolas eta adierazpen tradizionalak eta herrikoiak praktikatu.</p> <p>(G)</p> <p>5) Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen-bitartekoen berri jakitea, modu estetikoan eta sortzailean landuz, haiek sentitzeko, bizitzeko eta onartzeko, eta mugimendu propio baten bidez pertsonalizatzeko.</p> <p>(G)</p> <p>6) Jarduera fisikoa neurritz eta maiz egitearen garrantzia balioestea, norberarekiko nahiz besteekiko erantzukizuneko jarrera erakusteko, eta ariketa fisikoak, higieak, elikadurak eta jarrera-ohiturek osasunean dituzten eraginak aintzat hartzea.</p> <p>(H)</p> <p>7) Jarduera fisikoetan parte hartzea, besteekin batera talde-harremanak sustatzen dituzten proiektuak garatuz, eta aisia-kultura aberasgarri baten oinarriak eraikiz.</p> <p>(D-H)</p>	<p>C) Gorputza zenbait jarreratan jartzea eta orekatzea, tentsioa, erlaxazioa eta arnasketa kontrolatuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oreka lortzeko oinarrizko gorputz-jarrera mantentzen du. - Patinez irristatzeko oinarrizko teknikak menderatzen ditu: - Ahate-pausoak emanez desplazatzen da (ibili). - Oinarrizko bultzada eginez irristatzen da. - "A" motako biraketak egiten ditu. - Artazi-biraketa egiten du. - Patinaren balazta erabiliz balaztatzen da. - "T" eran balaztatzen da. - Atzerantz irristatzen da. - Aurrerantz desplazatzetik, atzerantz desplazatera igarotzen da, eta alderantziz. - Oztupoak pausoen edo saltoen bidez gainditzen ditu. <p>D) Jarrera aktiboak izatea, egoera fisikoa oro har hobetzeko, eta jarduerak egitean kontuan hartzea norberaren gorputzaren eta mugimendu-gaitasunaren aukerak eta mugak.</p> <ul style="list-style-type: none"> -Jardueretan, gustura hartzen du parte eta jarrera ona du. -Erronkaren aurrean, bere gaitasunak balioesten ditu eta taldearen beharretara egokitzen ditu. -Taldean, erronka motorrak gainditzen laguntzen du. -Erronkak gainditzeko estrategia egokiak erabiltzen ditu. <p>E) Modu koordinatuan eta lankidetzan jardutea, erronkak ebazteko edo taldeko jolasetan aurkari bati edo batzuei aurre egiteko, bai erasotzaile gisa, bai defendatzaile gisa.</p> <ul style="list-style-type: none"> -Jolas-egoera bere alde edo taldearen alde jartzeko gai da. -Erasorako eta defentsarako estrategiak erabiltzen ditu. -Eraso eta defentsa egoeretan rolak identifikatu eta betetzen ditu. -Bere ekintza motorrak besteekin koordinatzen ditu. -Kideekin errespetuz hitz egiten du. -Norbere eta besteen ahalegina era positiboan balioesten du. <p>F) Norberaren ahalegina eta taldearekin ezartzen diren harremanak identifikatzea jolasen eta kirol-jardueren oinarrizko balio diren aldetik, eta haiekin bat jotzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jardueretan, gustura hartzen du parte eta jarrera positiboa du. - Ahalegina eta harremanak emaitzaren gainetik balioesten ditu. - Bere ahalegina eta besteena balioesten du. - Irabaztea edo galtzea onartzen du. - Hausnartzeko denboran, taldean era positiboan eragiten du eta kritika eraikitzailea egiten du. - Kideekin harreman onuragarriak ditu. - Elkarlaneko jardueretan, bere zereginak onartzen ditu eta gustura hartzen du parte.
---	---

	<ul style="list-style-type: none"> - Besteei laguntzak ematen dizkie. <p>G) Talde-konposizioak sortzea ikaskideekin lan eginez, gorputzaren adierazpen bitartekoak erabiliz, eta estimulu musikalak, plastikoak edo hitzezkoak abiapuntutzat hartuta.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskal dantzen oinarriko pausoak eta jauziak sinkronizatzen ditu. - Dantzak asmatzerakoan irudimena eta sormena badu. - Inprobisazio-jardueretan, bere mugimendua eta gorputz-adierazpena hainbat musika motatara egokitzen ditu. - Gorputz -atalak eta hainbat objektu erabilia, zenbait eritmo esperimentatzen, sortzen eta errepikatzen ditu. - Gorputz-adierazpeneko oinarriko teknikak aplikatuta, pertsonaiak, egoerak eta irudiak antzezten ditu. - Bere gorputzaren adierazpen-baliabideak erabiltzen ditu, sentimenduak eta gogo-aldarteak komunikatzeko. - Besteen antzezpeneak ulertzen ditu. <p>H) Jokabide aktiboak izatea, ariketa fisikoak osasunerako duen balioa aintzat hartuta, gorputza eta jarrera- nahiz elikadura-ohiturak zaintzeko interesa izatea, eta drogen kontsumoa eta portaera-mendetasunak sor ditzaketen jokabideak saihestea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jarduera fisikoa egiteko arropa eta oinetako egokiak erabiltzen ditu. - Jarduera fisikoa egitean, osasuna eta higiena zaintzen ditu.
--	---

1. IRRISTAKETA:

Arazo-egoera: Zorionez hiriak gero eta atseginagoak dira oinezkoentzako eta motordun garraiobiderik erabili gabe desplazatzeko. Bidegorriak ikusten ditugu nonahi, eta honek aukera ugari ematen dizkigu modu ekologiko eta osasungarri batez desplazatzeko. Gure herrian, irristatzeko egokiak diren espazio edo eremu asko ditugu: frontoiak, kiroldegiak, jolastokiak, eta aldi berean gero eta bidegorri gehiago ere.

Gai ikusten duzu zure burua hirian barrena patinen gainean desplazatzeko? Zuk uste Gorputz Hezkuntzako saioetan zehar gai izango zarela behar duzun maila hori eskuratzeko?

Edukien sekuentzia:

- Irristaketa: bakarkako ekintza ingurune egonkorrean.
- Oreakaren oinarritzko gorputz-jarrera.
- Irristaketaren oinarritzko elementu teknikoak: ahate-pausoa, bultzada eta irristaketa (irristaketa-paraleloa), balaztatze erak (atzeko balaztaren bidez edo "T" erako balaztatzea) eta biraketak ("A" motako biraketak, artazi-biraketak).
- Babesgarriak eta horien erabilera: segurtasun-gomendioak.
- Patinen gaineko trebeziak.
- Patinen gaineko jolasak.
- Hockeya.
- Talde-hausnarketa: kritika eraikitzailea.
- Emozioen azterketa: emozioen kontzientzia hartzea eta norberaren erregulazioa.
- Ahalegina, parte-hartze aktiboa eta jarrera positiboa.
- Errespetua: ingurunearekiko, norberarekiko, lagunetikiko, irakaslearekiko eta materialarekiko.
- Osasun- eta higie-ne-ohiturak.

2. AZKEN DAKOTAK IPUIN MOTORRA:

Arazo-egoera: Sarri askotan bidezkoak edo justuak ez diren gertaeren aurrean ezin izaten dugu ezer egin, batez ere bakarka. Baina batzutan horrelako gertaerek taldea batu, izaera eman eta baraiena dena aldarrikatu eta borrokatze indarrak ematen dute. Historikoki hainbat eta hainbat herri eta etnia izan dira zapalduak eta unitate honetan *Azken Dakotak* ipuin motorraren bidez, Amerindiarrei gertaturikoa bizi izango dute ikasleek; ondorioz, beren lurretara itzuli eta haiek berreskuratzeko erronkari aurre egin beharko diote.

Gai ikusten zarete denon artean amerindiarren arbasoen lurretara itzuli eta han dagoen altxorra aurkitzeko?

Edukien sekuentzia:

- Kooperazioa edota elkarlana: komunikazioa, sinkronizazioa eta errespetua.
- Ipuin motorra: kontakizunak, erronkak, bizipenak eta balioak.
- Trebetasun motorrak: jaurtiketak, harrerak, igoerak, garraioak eta desplazamenduak.
- Taldearen eta norberaren gaitasunen eta mugen egokitzapena.
- Talde hausnarketa.
- Kritika eraikitzailea.
- Talde-kohesioa.
- Taldearen parte izatearen sentimendua.
- Egoera bakoitzaren balioestea, erronkaren emaitzaren gainetik.

- Emozioen azterketa: emozioen kontzientzia eta norberaren erregulazioa.
- Ahalegina, parte-hartze aktiboa eta jarrera baikorra.
- Errespetua: norberarekiko, lagunetikiko, irakaslearekiko eta materialarekiko.
- Osasun- eta higiene-ohiturak.

3. ARTZIKIROLA ETA COLPBOLA:

Arazo-egoera: Artzikirola eta Colpbola eskola eremuan landu daitezkeen talde kirol berriak dira, pixkanaka indarra hartuz doaz eta gero eta ezagunago bilakatzen ari dira. Artzikirola gainera, Artziniega herrian sorturikoa da.

Hainbat kirol tradizionalen nahasketatik sortu diren kirolak izanik, oso erakargarriak dira ikasleentzat guztien partehartze handiagoa bermatzen baitute.

Honako bideoak ikus genitzake:

<https://www.youtube.com/watch?v=zhvp06s0FEM>

<https://www.youtube.com/watch?v=bBMB5IhdWRg>

Gai izango ginatke gure artean Artzikirolezko edota Colpboleko partida bat jokatzeko?

Edukien sekuentzia:

- Elkarlaneko ekintzak eta elkarlaneko-aurkakotasuneko ekintzak.
- Taldeko kirolen oinarriko ikaskuntzak: espazioaren zein baloiaren erabilera egokia, erasorako eta defentsarako estrategiak, jolas-egoera taldearen alde jarri, helbururantz mugitu eta rol aldaketak eta ekintza motorren kateaketa egin.
- Artzikirola eta colpbolaren ikaskuntza espezifikokoak: baloi-gidatzeak eta baloi-jotzeak.
- Oinarriko trebetasun motorrak: jaurtiketak, paseak, harrerak eta desplazamenduak.
- Artzikirolaren eta colpbolaren arauak.
- Emozioen azterketa: emozioen kontzientzia eta norberaren erregulazioa.
- Ahalegina, parte-hartze aktiboa eta jarrera positiboa.
- Errespetua: norberarekiko, lagunetikiko, irakaslearekiko eta materialarekiko.
- Osasun- eta higiene-ohiturak.
- Talde-hausnarketa. Kritika eraikitzailea

4. GORPUTZ-ADIERAZPENAI :

Arazo-egoera: Egungo gizartean ikasleek beren sentimenduak eta barne-bizipenak erakusteko aukera gutxi izaten dute. Askotan, barne-korapiloak eta lotsak izaten dituzte, eta horrek beren buruarekiko irudi egokia eraikitzeko zailtasunak ekartzen dizkiete.

Gai izango ginatke gorputz adierazpeneko hainbat baliabide erabilita koreografia bat sortzeko?

Edukien sekuentzia:

- Gorputza eta haren mugimendua: gorputz-adierazpena.
- Dantzak eta koreografiak: euskal dantzen, hip-hoparen eta dantza libreen sormena, inprobisazioa eta errepikapena.
- Antzezpena: mimika-jolasa.
- Emozioen azterketa: imitazio- edota identifikazio-jolasak eta sormen-jolasak (sentimenduak, keinuak...).
- Emozioen azterketa: gorputzaren, keinuen eta mugimenduen bidezko emozioen adierazpena.
- Denboraren pertzepzioa: mugimenduen abiadura eta hainbat erritmo.
- Gorputz-perkusioa: erritmo-sekuentzien sormena eta errepikapenak.

- Espazioaren pertzepzioa: antolaketa (antzezlekua, ikusleria, materiala...).
- Emozioen azterketa: emozioen kontzientzia hartzea eta norberaren erregulazioa.
- Ahalegina, parte-hartze aktiboa eta jarrera positiboa.
- Errespetua (norberarekiko, lagunetikiko, irakaslearekiko eta materialarekiko).
- Osasun- eta higiene-ohiturak.

5. EUSKAL PILOTA I:

Arazo-egoera: Herri gehienetan baditugu hainbat frontoi: plaza librean, ezker paretarekin, estaliak, arkupetan, elizpetan, trinketeak, etab. Baina askotan ikusten dira pilotakoak ez diren partidak. Pilotan hegoaldeko modalitateak ezagunena eskuzkoa da, batez ere, komunikabideetan daukan presentziagatik. Hala ere, tokiaren arabera, badaude ospe handia izan duten beste modalitate batzuk ere; zesta-punta eta pala esaterako, historikoki berebiziko garrantzia izan dutenak.

Gai sentitzen zara frontoian beste baten aurka euskal pilotaren modalitate desberdinetan partidak jokatzeko?

Edukien sekuentzia:

- Bat baten aurkako estrategiak. Pertzepzio-, erabakitze-, gauzatze- eta erregulazio-mekanismoak.
- Begi-eskuen arteko koordinazioa.
- Euskal pilotaren modalitateak: esku-pilota, pala eta xistera.
- Teknologia berrien erabilera.
- Oinarrizko trebetasun motorrak: jaurtiketak, harrerak eta desplazamenduak.
- Euskal pilotaren arauak.
- Euskal pilotarekin lotutako hiztegia.
- Talde-hausnarketa. Kritika eraikitzailea.
- Emozioen azterketa: emozioen kontzientzia eta norberaren erregulazioa.
- Ahalegina, parte-hartze aktiboa eta jarrera positiboa.
- Errespetua: norberarekiko, lagunetikiko, irakaslearekiko, ingurunearekiko eta materialarekiko.
- Osasun- eta higiene-ohiturak.

6. MENDIKO BIZIKLETAZ JOLASEAN:

Arazo-egoera: Gure herri inguruko natura parajeak aberats bezain ederrak dira. Bertan, mendiko bizikletarekin ibilbide zoragarriak egin ditzakegu. Aurten, lehen aldiz, herriko BTT elkarteak 9 eta 12 urteko gazteentzat mendiko bizikletaz egiteko ibilbide bat antolatu du. Nola ez, adin hauetako ikastetxeko ikasleek proban parte hartzeko gonbidapena jaso dute.

Gai izango ginatke bizikleta gidatzeko oinarrizko teknikak menderatuz eskolatik kanpo (ingurune ez ohikoetan) mendiko bizikletarekin ibilbidea burutzeko?

Edukien sekuentzia:

- Desplazamenduak bizikletaz ziurgabetasun-inguruneetan edota ez ohikoetan.
- Bizikletaren erabilera egokia eta trebetasunak.
- Planoen eta grafikoen interpretazioa.
- Bizikleta-atalen erabilera egokia (balazta, abiadura-aldagailua...).
- Zirkulazio-arauak: oinarrizko bide-seinaleak eta segurtasun-gomendioak.
- Ingurumenaren ezagutza eta errespetua: garapen jasagarria.
- Bizikletaren oinarrizko mantentze-lanak: eserlekuaren altuera doitzea, gurpilen

presioa neurtzea eta gurpilak aldatzea.

- Norberaren indarraren neurketa eta esfortzu fisikoaren erregulazioa.
- Arriskuen antzematea eta saihestea.
- Talde-hausnarketa: kritika eraikitzaileak.
- Emozioen azterketa: emozioen kontzientzia hartzea eta norberaren erregulazioa.
- Ahalegina, parte-hartze aktiboa eta jarrera positiboa.
- Errespetua: natura-ingurunearekiko, norberarekiko, lagunekiko, irakaslearekiko eta materialarekiko.
- Osasun- eta higiene-ohiturak.

METODOLOGIA

Programazioa, praxiologia motorren ikuspegitik, ekintza-dominioetan oinarrituta dago. Horrela programatzeak onura nabarmenak ditu; izan ere, maila bakoitzari zein etapa guztiari koherentzia eta batasuna ematen dio, kompetentzia motorren garapenean ikasleari hainbat egoera motor eta testuinguru eskaintzen zaizkio, ekintza-dominioen bidez ikasleak menperatu behar dituen ekintza printzipioak zehazten dira (ikasleak barneratu behar dituen oinarrizko jakintzak), Gorputz Hezkuntzari ikuspegi zabalagoa ematen dio (eduki zehatzetatik haratago kompetentzia motorren garapenean zentratuz) eta irakasleen hausnarketa sustatzen du curriculumetik haratago. Egoera motorren antolaketari dagokionez, Gorputz Hezkuntzan eskolan lantzen diren gorputz-esperientziak sei ekintza-dominio hauetan bildu dira:

1. Bakarkako ekintzak. Ingurune egonkorrean egiten diren jarduera fisikoak, nagusiki egoera psikomotorrez edo bakarkako egoeraz osaturikoak (gorputz eskema garatzeko jarduerak, gorputzaren kontzientzia hartzeko jarduerak, egoera fisikoa hobetzeko jarduerak, gimnastika deportiboa, igeriketako bakarkako jarduerak, atletismoa, harri-jasotzea...).
2. Bat baten aurkako ekintzak. Ingurune egonkorrean egiten diren jarduera fisikoak, nagusiki besteekiko aurkakotasun-elkarrekintza motorrez osaturikoak (borroka-jolasak, judoa, badmintona, esgrima, esku-pilota 1x1...). Jarduera horien helburua zehaztutako arau batzuk erabiliz aurkaria gainditzea da.
3. Elkarlaneko ekintzak. Ingurune egonkorrean egiten diren jarduera fisikoak, nagusiki elkarlaneko elkarrekintza motorrez osaturikoak (taldeko akrobaziak, malabarismoa taldeka, jolas kooperatiboak, ipuin motor kooperatiboak, erronka motor kooperatiboak...). Ikasleek helburu komun bat lortzeko elkarlanean aritu behar dute, proposaturiko arazo motorrari erantzuna aurkitzeko elkarren artean komunikatuz eta koordinatuz.
4. Elkarlaneko-aurkakotasuneko ekintzak. Ingurune egonkorrean egiten diren jarduera fisikoak, nagusiki elkarlaneko eta aurkakotasuneko elkarrekintza soziomotorrez osaturikoak (beisbola, futbola, saskibaloia, hockeya, boleibola, eskubaloia, zenbait jolas tradizional...). Helburua elkarlanean arituz aurkako taldea gainditzea da.
5. Ziurgabetasun-inguruneeko ekintzak. Ingurune fisikora egokitzeko jarduera fisikoak dira; ingurunea bera ezegonkorra izanik ziurgabetasuna duten jarduerak dira (mendizaletasuna, ibilaldiak mendiko bizikletan, elurretako jarduerak, eskalada, orientazio-jarduerak, piraguismoa...).
6. Adierazpen- eta arte-ekintzak. Izaera artistikoa, espresiboa edo komunikatiboa duten jarduera fisikoak dira. Ikasleek adierazpenezko erregistroak erabiliz irudimena

eta sormena garatuko dituzte (gorputz adierazpena, dantzak, koreografiak, jolas dramatikoak, mimika, gimnastika erritmikoa, akrosporta...).

Etapako maila bakoitzean ekintza-dominio guztiak garatzen direla bermatu da programazioan, unitate didaktiko bakoitzean nagusiki ekintza-dominio bati garrantzia emanez. Hori dela eta, ikasleen taldekatzea nagusiki helburuen araberakoa izango da (bakarka, binaka, talde txikitan nahiz talde handian).

- Gaur egungo hezkuntzaren ikuspegiaren arabera, konpetentzietan oinarritutako irakaskuntza-prozesua garatu behar dugu. Hori dela eta, egoera desberdinetan konpondu beharko dituzten hainbat arazo motor proposatuko dizkiegu ikasleei, eta, horiei irtenbideak aurkituz, konpetentziak garatzen joango dira. Konpetentziak lortzeko eta arazo motorren aurrean arrakasta izateko, komeni da ikasleek mota guztietako baliabideak eta estrategiak erabiltzea. Azken finean, helburua da eskuratu dituzten jarrera-, prozedura eta kontzeptu-edukiak transferitzen eta bateratzen ikastea. Hori eginez gero, bestelako egoera konplexuetan ere arazoei irtenbidea ematen ikasiko dute. Irakasleen helburua da ikasleek beren ikaskuntza eraikitzea eta konpetentzien garapena ziurtatzea. Horretarako, ekintzatik eta hausnarketatik berriro ekintzara itzuli beharko du ikasleak, barneratutakoa praktikan jarritz. Izan ere, ikaskuntza esanguratsua ez da lortzen irakasleak alde aurretik emandako ereduak edo erantzunak ikasleek besterik gabe errepikatuz. Horregatik, irakasleak ez dizkie ikasleei alde aurretik erantzunak eta irtenbideak eman behar. Ikasleei ikaskuntza-prozesuan laguntzea da irakaslearen eginkizuna, ekintzetan eta hausnarketetan galdera zehatzak eginez. Beraz, konpetentziak lantzeko prozesuan irakaslearen egitekoa, ikasteko prozesuak diseinatzea, planifikatzea, antolatzea, ikasleak estimulatzeko eta motibatzea, laguntzea, ebaluatzea eta bideratzea izango da.

- Saio bakoitzak helburu zehatz bat izango du, eta, beharra ikusiz gero, jarduera gehiago proposatuko dira helburu hori lortzeko.

- Eguneroko saioetan sortzen diren egoerei eta aniztasunari erantzun egokia emateko, ikasle guztiei eman behar dizkiegu benetako aukerak, alde aurretik ezarritako helburuak lor ditzaten. Horrez gain, saioetan gerta daitezkeen gatazkei trataera egokia eman nahi badiegu, ikasle guztiei eskaini behar dizkiegu estrategiak eta baliabideak, beren gatazkak era autonomoan bideratu eta konpon ditzaten.

- Unitate didaktikoaren hasieran egiten den ebaluazioaren bidez ezagutzen dira ikasleen gaitasunak eta gabeziak. Hala, beharren arabera, proposatuko diren egoerak eta jarduerak egokitzeko unea izango da, eta ikasleek aurkituko dituzten zailtasunek ezarriko dute proposamenen eta jarduera berrien lanketa eta garapen-maila. Batzuetan, jarduerak zaildu beharko dira eta, beste batzuetan, erraztu. Halaber, hainbat jarduera behin baino gehiagotan errepikatuko dira, ikasleek ikaskuntzak ongi barnera ditzaten.

- Saioak garatzean, ekintza- eta hausnarketa-tarteak txandakatuko dira. Saioetan, batetik, jardueraren bidez ikasitakoak ikasleentzat esanguratsua izan behar duela aintzat hartuta, ekintza motorrei behar beste denbora eskainiko diegu beti; bestetik, ikasleek egiten dituzten kritikak eraikitzaileak izan daitezen ahaleginduko gara hausnarketa-uneetan —jardueretan aurkitutako estrategiak, irtenbideak eta ekintza-arau eraginkorrak adierazteko eta finkatzeko uneak baitira—. Horretarako, arbela erabiltzea lagungarria izango da.

- Saioen iraupena ordu batekoa izango da, eta higiene-ohiturak bukaeran landuko dituzte ikasleek.

- Azkenik, saioen hasieran eta bukaeran, eskaner emozionala izeneko dinamika egingo da. Dinamika horren bidez, ikasleek emozioekiko kontzientzia hartzea eta autoerregulazioa sustatu nahi dira, eta, horretarako, ikasle bakoitzak une horretan sentitzen duen emozioa kolore jakin batekin lotuko du: kolore horiaren bidez, poztasuna; urdinaren bidez, tristura; berdearen bidez, lasaitasuna; eta gorriaren bidez,

haserrea. Informazio hori oso baliagarria da; izan ere, irakasleak hasieran eta bukaeran jasotako informazio horren arabera kudea dezake egoera bakoitza.

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
<p>Hasierako ebaluazioaren orria</p> <p>Lorpenen jarraipen orria (Ikas-prozesuaren behaketa sistematizatu)</p> <p>Autoebaluazio-orria</p> <p>Koebaluazio-orria</p>	<p>Arlo honetan, kalifikazio irizpide garrantzitsuenak, hauek izango lirateke:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Espezifikoak (jokabide motorraren garapena) % 55 • Orokorrak (ahalegina, arreta, parte-hartze aktiboa, jarrera positiboa, errespetua: norberarekiko, lagunekiko, irakaslearekiko, inguruneekiko eta materialarekiko) % 45 <p>Kalifikazio irizpide nagusiena, ikasleek hasierako prozesutik bukaerarako prozesura gaitasunetan emandako garapena izango da.</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>Irakasleak, ahal duen neurrian, banakako plan bat prestatuko du arloko helburuak lortzeko zailtasunak dituzten ikasleentzat (laguntza-plana), edo helburuak oso erraz lortzen dituztenentzat (aberastea) guztien laguntza-premiei erantzuteko asmoz.</p> <p>Horrez gain, ikasleen familiak informatuta egongo dira eta orientabideak emango zaizkie hiruhileko bakoitzaren amaieran, euren inplikazioa bultzatzeko.</p> <p>Ebaluazio bakoitzaren bukaeran, irakaste-ikaste prozesuaren balorazioa egingo da, hurrengoak kontutan hartuz:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erabakitako helburuen egokitasuna eta lorpen-maila. • Ezarritako edukien antolaketa eta haien arteko oreka. • Gelaren antolamendua (talde txikian, talde handian, bakarka...). • Ikasle-taldearen ezaugarriak, interesa eta parte-hartzea. • Ikasle-taldeak antolatze irizpideak (neska-mutil, gaitasunen arabera homogeneousak edo heterogeneoak...). • Erabilitako material didaktikoak. • Prozesuaren ikasleen autoebaluazioa (irakaslea, metodologia, jarduerak, asetze maila, hobekuntzarako proposamenak...) <p>Balorazio horretatik abiatuta, aldaketak sartu ahal izango dira plangintzan, beharrezkoa ikusten bada.</p>	

OHARRAK / OBSERVACIONES